

TTiPi-TTAPA

BAZTAN - BIDASOA - MALDA ERREKAKO ALDIZKARIA

1 9 8 6.Ko Urria 17. zenb.

UDA HONETAKO ARGAZKI BATZUK.



NON-ZER

BERRIAK
2. Bera.
4. Etxalar.
6. Lesaka.
7. Arantza.
8. Saldias.
9. Zubieta.
10. Ituren.
11. Aurtiz.
12. Zugarramurdi.
14. Baztan.
GAIAK, IPUIAK, ELKARRIZKETAK...
16. Euskal mitologiari buruz.
18. Plixio.
20. Euskadin gaur.
22. Xalbador.
23. Ze Zepelin.
24. Etxebizitzak gure euskualdean.
26. Lesakako San Anton.
28. Auzolana.
32. Bizitzaren txokoak.
POESIA, BERTSOAK...

Azala: Ester Fernandez.
Kontrazala: Pikabea.

OHARRA:

Ttipi-Ttapak azkenean badu non ernaldu, lorepote bat bezain tikia da, baina aurrez aurre balkoi loretsua dauka azpitik berriz minerala, ongarria eta zuek neska-mutilak, gizon-andreak zuen lanak bidaltzen badituzue, euri goxoa izanen zerate. Ea bada, hemen zuzenbidea eta ea denon artean lore ederrak eman erazten diogun Bidasoa baztar hontako landare honi.

TTIPI-TTAPA
ARRETXEA KALEA Z/G
LESAKA NAFARROA

TTIPI-TTAPAKO HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

BERA

ESKOLAK HASI DIRA.- 16 ikasle "Ricardo Baroja" ikastetxean eta 20 ikastolan ditugu eskolaurrean hasi diren umetxoak. Bertze aldetik, Ikastolako 8.mailatik ateratako gazteen artean, 14 BUP euskaraz egitera abiatu dira, 13 Mugairera, 7 Berako Lanbide Eskolara, 1 Irunara zurgintza egin nahiean eta 1 Hondarribiara.

ASPACE.- Lokala kondizio txarretan dagoela eta, talde honek arazoak ditu. Orain arte, kuartel zaharrean egon dira, baina hemendik aurrera ez dakite zer gertatuko den. Etxea erortzera doala eta Herriko-Etxeak ez omen du dirurik etxe guztia moldatzeko, ezta bertze tokirik jende hauek egoteko modukoa.

ATSrako deialdia zabaldu da, honen epea azaroaren lehenengo egunetan bukatuko delarik.

BARIANTEA.- Nafarroako Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko Kontselariak onartu du bariantearen adjudikazioa. Hau Joakin Salanuevari eman zaio, bere aurrekontua 7,1 miloiena delarik. Joakin Salanueva Iruñeako Udaletxean zinegotzia da, C.P taldean. Projektu honen barruan bi zubi egingo dituzte, 80 metrotakoak eta 400 metrotako tunela bat.

KOTXE ERREA.- Joan den abuztuaren 23an eta Euskal Herriko bertze herrietan bezalaxe, "ezezagun" batzuk kotxe bat erre zuten Beran. Kotxe honen jabea Martin Susperregi da, HBko sinpatizantea eta Aduanako langilea.

Herriko Etxeak gogorki salatu du ekintza hau eta bere laguntza eskeini du, Nafarroako Gobernuaren aurrean behar diren jestioak egiteko, ekintza honen kalteak ordaintzeko. Eta Diputazioak ez badu ordaindu nahi, Udaletxea laguntzera konprometitu da.

BESTAK.- Urtero bezala, humore eta giro ederrean pasa ditugu Santa Gurutzetan Ilekuetako hauzoan, ospatzen diren bestak. Larunbata eguerdian eman zitzaien hasiera, hauzoko gazteen txarangak kalejira joz. Arratsaldean, txirrindularien proba eta dantzariak, gauez dantzaldia. Jende ugari ibili zen. Igandean berriz, goizeko 10etan tiroz plater hauste txapelketa eta ondoren meza. Ondoren haurrentzat jokoak eta haizkolariak. Larretxea anaiak. Besta giroan jarraituz bazkarian 80 bat lagun elkartu ziren eta bukatzeko dantzaldia "Artotarte" enparantzan, Lizartzako itsua den Kaxianorekin.

LEHIAKETA.- "Caja Rural de Navarra"k antolaturik zabaldu da diapositiba eta argazkien 2.lehiaketa. Edonorrek parte har dezake eta bakoitzak 3 lan aurkezteko aukera du.

Gaia "trazos navarros" da eta epea urriaren 15ean itxiko da.



Banatuko diren sariak hauek dira:

1.- 40.000 pzta.
2.- 20.000 pzta.
3.- 15.000 pzta.
4.- 10.000 pzta.
5. 6. 7.ak.- 5.000 pzta.

EPAko IKASTAROAK.- Zabaldu da bekarik gabeko ikastaro hauetan izen emateko epea.

Eginen diren ikastaroak, jende minimo bat apuntatzen direnak izanen dira. Izen ematea Udaletxean izanen da, Irailaren 9tik 20era, ondoko ikastaro hauetarako:

Bertsolaritza, Sikologia, Sukaldaritza, Frantzesa, Ingelesa, Korte eta jantzigintza, Gimnasia, Informatika, Mekanografia, Eskulanak eta Elikadura.

IGERILEKUA.- Herriak ttikitzen ari omen dira, bainan Beran ez dirudi horrelako arazorik dagoenik. Igerilekua ttikiegia gelditu zaigu eta hau haunditu nahiean, Herriko-Etxea terreno gehiago erosteko asmotan dabil.

CORREOS. Beran, jendearen joanetorria haundia duen leku bat Correos da. Nahiz eta Correos betidanik, Nazional Espainola erakunde baten itxura eman, bertako langileak, euskaltzale eta gizartean konprometituak direla, badakigu. Paratu berriak dire gutunontziak Endaltsan, Zalain Zokon eta Alkaigan; Berako bertze auzoetan ere behar dire, baina horretarako enplegatu bat gehiago behar leike, eta oraindik behintzat ez da horrelakorik. Burokrazian erori den erakunde bat da. Adibidez, oporretan sustituzioak egiteko bertako jendea hartu beharrean, kanpokoa ekarriko dute, horrek dakarren nahaste guztiekin. Egia erran, baita, etzirela agertu Beratik inor, postarirako egin ziren azterketara. Bertze traba, Correosan izaten dena, bertako bulegoan sobera maiz aldatzen direla, batzutan euskara onartzen ez dutenak ere. Orain dauden postariak nagusirako azterketara agertu dire, baina zaila hagitz omen da kargu hau lortzea.

BERAN NEKAZARI KOOPERATIBA martxan dago. Illekuetako etxe berri batean lekua du, eta buru egiten duten nekazariak: Segundo Korta, Pedro Agirre, Esteban Errandonea, Juan Carlos Alzuguren, Isidro de la Loma, Angel Aranibar, Angelina Peña eta Esteban Alzuguren. Ia badire 50 bazkide eta oraingoz, pentsua, labrantza tresnak eta ongarriak dituzte bakarrik, baina kooperatiba zabaltzeko asmoz ari dire. Asteazken arratsaldean eta larunbata goizean irekitzen dute.

ETXALAR



HERRIKO PLAZA: INFORMAZIOA ZUZENEAN.- Herriko plaza, Etxalarko Herri Taldeak argitaratu berri duen aldizkaritxoa dugu. Oso osorik euskaraz egina eta helburu nagusi batekin batez ere: herrian gertatzen dena eta Herriko Etxeko informazioak, herritarrei zuzenean eskeintzea.

Lehen ale honetan, Herriko Etxean azken lau urte hauetan gertatutakoaren azalpen laburra eskeintzen digute, eta aldi berean independiente taldearen jokaera salatu. Ondoren, "Saneamendu obrak gaizki doaz" izenburupean, obra hauen martxa txarra adierazten da.

Eskola, Ikastola eta euskararen egoeraren berri ere ematen da ale honetan. "Duela urte terdi, Hezkuntza delegaziora papera egin zuen Udalak, haurrak denak herriko eskoletan gelditzea eskatuz eta bi hizkuntzez erakustea. Ministaritzak ongi hartu zuen eskaria, kondizio bat paratuz: Udalak behar zen lekua eskeintzea. Baina zer egin da geroztik leku hori prestatzeko?

1985eko maiatzean, Herri Taldeko kontzejalek mozioa presentatu zuten, 5 gelatako ikastetxe berria jasotzea proposatuz, bere jostaleku eta guzti. Independiente izeneko taldeak ez zuen onartu. Eta gehiengoa Aiuntamientuan, berek bait dute... gero eskoletako proposatu zen lekuan, independiente horiek kuartela egitea aprobatu zuten".

Eta bukatzeko, azken orrian eta "Independientes, bai zera!" izenburupean talde honen jokaera eta prozesoa analizatzen digute. Bertze alea ere berehala prestatzeko asmotan dabiltza.

SANEAMENDU OBRAK... EDO TXAPUZAK NAGUSITZEN DIRENEAN.

Orain dela 8-9 hilabete hasiak ditugun obra hauendako, izango da seguro aski erratekorik denbora luzean. Eta ez arrazoi faltagatik preziski. Non nahi txapuza ugari ikusten ari gara.

Eta honetaz hitzegiterakoan bi zatitan bereizi genezakeen asuntoa: alde batetik lurrazpiko tuberi sarea, benetako saneamendu obra, eta bestaldetik karriken egoera eta azaleko obra.

Lehen zatiari buruz, gure susmo txarrak ezin ditugu gorde. Orain dik tuberiak estali berri daudenean, han hemenka, karriketan, ura sortzen hasi da. Ez da zaila asmatzea nondik sortzen diren iturri berri hauek!

Karriken egoera berriz, nahiko adierazgarria da jadanik. Denok ikus dezakegu, begi bistan baitago, lehen baino makurrago gelditzen ari dela. Toki frankotan karretera eta azerak, etxe sarrerak baino gorago gelditu dira. Karreteraren zola berriz, loditasun guttikoa eta nahiko zakarra gelditu da. Beraz, euria egiten duenean putzuz betetzen da eta martxa honetan negua etorri orduko dena harrotu eginen da. Azerak berriz orain dauden bezala gelditukо dira, hau da; bukatu gabe. Noizbait subenzioa lortzen bada bukatuko dira. Bitartean, bordillo traba emangarri horiek agontatu beharko ditugu. Dena den, azera berri hauekin, lehen baino traba handiagoak izango ditugu ibiltzeko, hainbeste bordilorekin, karretera berek lehen baino hestuago gelditu baita zenbait tokitan. Aparkalekuak ere ez dituzte kontutan hartu.

Beraz, begi bistan da errealitatez kanpo egindako projektua dugula hauxe. Gauzak horrela, penagarria da, Udalaren jokaera. Gauzak ongi egitea eskatu beharrean, nahiago dute txapuza horiek justifikatu.

"NORMA SUBSIDIARIA"K JENDE AURREAN AURKEZTEKO PREST.- "Normas Subsidiaria" edo etxegintzarako arau lagungarriak, Udalaren aurretik pasa ondoren prest daude jende

aurrean aurkezteko. Arau hauek etxegintza bideratzeko beharrezkoak dira, beraietan erraten baita zein izanen den herriaren etorkizuna arlo horretan. Aldi berean ere, arau hoietan erraten da hemendik aurrera egin daitezken etxe bizitzak, fabrikak, kirol lekuak etab.; zein lekutan eta nola egin daitezken.

Beraz, orain dugu momentua, informazio horretaz jabetzeko, behar diren aklarazio guztiak eskatuz.

O.H.Oko 6. MAILA, AURTEN ETXALARREN.- Berriketa aunitz baditugu urte honetan eskolari dagokionez. Alde batetik, eta honetan Bortzirietako azkenekoak gara, lehenengo kurtsoko haurrak euskaraz eginen dute. Eta bestaldetik 6. maila dabiltzanak Etxalarren geldituko dira. Hortarako, Herriko-Etxe zaharrean, prestatu diete gela bat. Dakizuenez, Herriko-Etxeko zaharra, orain arte Guardi Zibilen koartela bezala okupatua zegoen. Eta noski oraindik bakarren bat bizi da. Maister kuttun hauek, etxea zeharo desegina utzi dute, nahiz eta etxe ederra izan. Gaur berriz, eskolarentzat gela bat han egokitu arren, Guardia Zibilen kotxeak arkupean diraute. Arkupe hori, haurrek jostatzeko beharrezko dute, are gehiago negua bertan dugularik eta toki estaliak eskertzen direnean.



Bestalde, gero eta beharrezkoago ari da bilakatzen, instalazio egoki batzuk jasotzea, hau da eskola berriak egitea bere jostaleku eta guzti.

GAU PASA ETA USATEGIETAKO IGANDEA. Urriaren 19an, Usategietako igande bezperan, gau pasa izanen da Niko Etxart eta Minxoriak taldearekin, herriko kultur taldeak antolatuta.

Biharamonean berriz, urtero egiten den bezala aurten ere, Usategietako igandea ospatuko da.

SANITARIO EDO ERIZAIN BAKANTEA.- Urriaren 14an eta goizeko 9etan eginen zaie azterketa Herriko-Etxean. Azterketaren temarioa, orain berriki Sunbilan erabilitakoaren antzekoa izanen da. Epai-mahaia edo tribunala hauexek osatuko dute: Udalaren ordezkari bat (Alkatesa seguraski), "Secretariado Navarro ATS"ko bi partaidek eta Zonaldeko bertze bi ATS (Igantzikoa eta Lesakakoa).

Arratsaldez izanen dute berriz euskarazko proba. Jakin dugunez lau edo bost erizainek eman dute jadanik hortarako izena.

Espero dezagun orain, hautatua suertatzen den erizaina, serioski parte har dezan zonaldeko osasun plangintzan, orain arte eta oraindik sufritzen dugun arduragabezia gainditzeko.

ZUGARRAMURDI ALDEKO BIDEA.- Zugarramurdi eta Etxalar lotuko dituen errepidea, abuztuan bukatu behar bazen ere, badirudi guttienez abendu arte luzatuko dela.



LESAKA

BETI-GAZTE.- Herri honetan kirol gehiena, futbolean mugatzen da.

Honekin ez dugu erran nahi bertze kirolarik ez denik, baina gehiena futbola dugu.

Dena den pilotak ere badu bere garrantzia. Hortarako pilota Elkarte bat sortu zen eta dirudienez bizitza ematen ari da pilota mailean ere, txapelketak antolatuz.

Beno, orain behintzat futbolarekin segituko dugu eta gainera oso goran jarriz, zeren orain bitarte garrantzi handia izan badu, hemendik aurrera gehiago.

Orain arte "rejionalean" lehenengo mailan egon da eta aurten bere kategoria aldatu dute eta ez behera, baizik eta gora, orain "preferentera" igo zaigu.

Ez pentsa erraza izan denik hauentzat, beren izerdiak atera dituzte gazte hauek, kategoria hau lortzeko.

Hortarako aitortu beharra dago beurek egiten dutela fisikoki lana baina moralki laguntza handia izan dutela zeren jendea beti gainean dago nahiz hemen eta nahiz kanpoan ospatzen diren partidoetan. Jarraitzaile pilo bat inguruan, ze suerte!. Laister autobus konpainia batek hartu

beharko du bere gain jarraitzaile hauen nahiak betetzeko, erran nahi dut kanpora desplazatzeko alegia.

Bromak aparte utzi dezagun eta ia mantenitzen duten aurten kategori hau. Gure aldetik ere animoak ez dituzte falta izanen. Aurrera!!!

Lesakara ere iritxi ziren "ez ezagun " horiek.

ANBULATEGIA.- Landa zelaitik paseatzen ibiltzen bazarete konturatuko zarete anbulategia bertze itxura hartzen ari dela.

Guk uste genuen baino azkarrago ari dira lanean etxe hori egiten.

Pentsatzen dugu martxa honetan datorren urte hasierako ez dugula Irungo etxe hortara joan beharrik. Hori ez bada horrela, lasaitasunarekin hartu beharko dugu asuntoa, zeren alderantziz hartzen badugu ez dugu odol txarra besterik egingo, eta gero beharbada sendagileei lana gehiegi emango diegu.

LESAKARRAK EUSKADIKO MARMITAKO TXAPELKETAN.- Joan den irailak 14, Izarran (Araba) Euskadiko marmitako txapelketa ospatu zen.

Hemen Euskadiko txapelketa denez Nafarroak ere parte hartu zuen. Gainera aipagarria da Bortzirik duen garrantzia, zeren Nafarroatik 6 talde aurkeztu ziren: Bat Etxalarkoa, eta bost Lesakakoak.

Lesakatik aurkeztu ziren taldeak hauek izan ziran:

. Eguzki
. DYA
. Arkupe
. Basurde
. Ikastola

Orduan aipagarria da Eskualde honek duen eragina gauza honetarako. Honekin erran nahi duguna da Kostaldeko ohiturak hemen nabarmenak direla. Hamargarren postuan geratu ziren Lesakako Basurde Elkartekoak, eta aprobetxatuko dugu honekin gure zorionik beroenak emateko eta noizbait nahi badute, ba gure aldizkarian lan egiten duten jendeari marmitako batetara konbidatzea. (Hau broma bat da)

ARANTZA

IKASTURTEA HASI ZAIGU.- Bai, ikasturte berria hasi zaigula eta normalean baino nahaste handiagoa izan dugu oraingoan, izan ere, ikasgela berriak prestatu behar izan bait ditugu, lehenagoko eskola handitzeko eta berritzeko obrak hastear bait daude. Hortarako 30 milioiko partida jadanik designatua dugularik. Beraz, aurtengoan nola edo hala ibiliko bagara ere, mereziko du, datorren urtean eskol berria eta ederra izango bait dugu.

Aurtengoan Udaletxean prestatu diren geletan ikasi eta Ekaitz Elkarteak utzitako lokalean bazkalduko dute gure haurtxoak.

EHIZTARIAK KEZKATI.- Ehiztariak erabat kezkati dabiltza, nolatan eta zurrumurrua handia bait daude ehiza debekatuko ote duten edo usoak kontaminaturik etorriko ote diren Chernobileko istripua dela medio.

Oraingoz ehiztari guztiak antinuklearrak bilakatu dira, eta aurten antinuklear ikurra jarriko omen dute ehizarako dauzkaten seto guztietan.

Bestalde, badira bai, batzuk hau dena Zubietarrak prestaturiko kanpaina dela diotenak ere.

Ez ote zuten heurek probokatu Chernobilko istripua, Aranaztarrei ehiza izorratzeko? Momentuan Gorbachov arrisku berri honen jakinean jarri omen dute eta ikerketa serioa burutuko dituela prometitu omen zuen... Beraz, urrengo Ttipi-Ttapa arte itxoin beharko istilua argitu dadin.

LEHORTEA.- Baserritarrak beti bezala kexu dabiltza. Urte hasieran Europako Ekonomi Elkartean sarreraren ondorioak jasan behar baldin bazituzten, orain Jaungoikoa ere beuren aurka dagoela diote eta lehorte izugarria jasan beharra tokatu zaie. Bata eta bestea dela eta baserritar asko izango direla beste ogi bide bilatzera behartuak aurreratzen dute. Ez dakigu Jaungoikoarekiko fedeak ere suerte berdina korrituko duen.



HERRIKO BESTAK.- Ez ditugu bukatu berriak diren herriko besteei aipamen labur bat egin gabe utzi nahi, nahiz eta aspalditxoko kontua izan.

Egia erran nahiz eta jendetza izugarria ez den ibili, giro ezin hobea suertatu da, lau egunetan. Jendeak asko dantzatu du aurtengoan eta plazan egunero umore eta algara zen nabarmen.

Bestalde, aurten AEKtaberna ere Herriko plazan zegoen, honek ere asko lagundu du giro ederra eta euskalduna sortzen.

SALDIAS

Bestetako zerbait kontatu nahi genuke. Aurten ere betiko jende berdina egon gara prestatzen, dirudienez jendeak ez du inoiz gogorik izaten zeren ez da bilerarik egin ez dugulako izanen. Baina bueno, ez gara betiko roiloetan hasiko eta beste aldi baterako utziko dugu. Aurten zerbait desberdina egin dugu eta kontatu nahi genuke.

Dakizuen bezala, urtero umeentzako egun bat prestatzen dugu. Jende gutxi geunden eta lan asko egin beharra, orduan gurasoei laguntza eskatzea pentsatu genuen. Erantzuna ederra izan zen, haien kargu hartu zuten lan guztia eta benetan arratsalde ederra prestatu zuten. Zorionak lan horretan parte hartu zutenei eta besteei.. Animo! Hurrengo urtean denen artean prestatu izan dadila!

1.982 ko Sanjuanetan frontoi eder bat inauguratu zen Saldiasen. Besta galanta izan genuen ere. Nahiz eta batzuentzat polita ez izan aterpe bat genuen, eta bueno, pozik geunden. Baina bakarrik lau urte pasa dira eta gauzak okertzen hasi dira. Aurtengo neguan txapa puskak erori dira, kaneri bat edo bi ere hautsi dira eta azkena Sanjuan egunekoa izan da. Pilotariak hasi dira partidua jokatzen eta han geunden jende mordoska ederki aski konturatu ginen zer nolako zola daukan gure frontoi miresgarri honek. Pilota atzera joan beharrean bertan gelditzen zen, hori 4-5 zenbakien artean. Ezker pareta txarra omen du ere. Argi dago ez dela aproposa pilota partidu on bat jokatzeko.

Ez zaigu dantzaldiak egiteko ere gustatzen, exerleku ederrak ditu eta jende asko hantxe gelditzen dantzan dagoen jendea begira, feri bat balitz bezala.

Azkenean, jende askok galdera hauxe dugu buruan, ez al zaigu "txapuza" bat aterako?.

Oraingo hau berri ona dugu. Besta aurretik karrikak moldatu zituzten losa jarriz eta dotoreak gelditu dira. Denak egiteko ez omen zuten dirurik, ia falta direnak lehenbaitlehen egiten diren eta dena ongi gelditzen den.

Badakizue Uztailaren 16ean zinea izan genuela Saldiasen? Bai, beste ikusteko askoren artean Charloten "Tiempos modernos" pelikula ikusi genuen. Hau dena Trokolo taldeak eskeini zigun. Talde eder honek arratsalde eta gau on bat pasaarazi ziguten, herri gehiena atera zen kalera eta denok pozik gelditu ginen. Gainera gau ederra egin zuen eta zoragarria izan zen gazte eta zahar kalean ikustea eta gustora gainera. Txalo bero bat Trokolo taldeari eta baita ere Herriari, eman zuen erantzunagatik. Askotan errepika dadila egun hori.

ZUBIETA

Oraingo hontan berri guztiak sakabanatuak agertzera goaz... udako ondorioak... festak eta lanak akitzekoak.... erredakzioko ekipoa bere zerara etortzekoa... enpin! profesionalak ez garela, dudarik gabe! Pentsa, nola esaten genduen Zubitarrak Bretañara joan behar zirela? Joan ziren ba, eta Errandoneko atarian zirela, kamioia kargatzen eta agurketan, gure tarteko bateri inmortalizatzeko gogoa sartu zitzaion eta, gehiago pentsatu gabe abiatu zen hortik zehar flasdun argazki makina baten bila. Bilatu ere eta gaua tximistaz bete, ortotsa gabeko ekaitza zela uste zuen batek. Total, soinu gabeko tximistak eta kargatu gabeko makina ondorio berdinak: ez euri ez argazki. Hasiera ederra! Ikasiko dugu! Por zierto, eta ia ke hortaz ari garen, joan ziren joaldunak, Toureko etapa bat ikusi, Lejarreta eta hoiekin argazki batzuk atera, eta Bretañara.

Hemen badugu gure zalantza: Bretaña edo Pe-Pe-Pestaña? Zeren herriko mutil zahar batek, munduan zehar ibilitako artzai hoietako batek, frantzesez ongi aritzen dena -ostatutan-. Adierazteko, ezkerreko eskua zabalduz, Paris erdian kokatzen zuen eta bere Pestaña erdiko hatz puntan. Nola ote?

Era batera edo bestera herrian zera ikasi dugu: han oso organizatuak daudela, Zanpantzarrekin harrituak geratu zirela eta jateko ohitura arraroak direla: arroza eta artua. To! itzuli orduko txuleta bana jateko astirik ez zuten eduki! Hori bai, haik juergak eta bullak!

Politak izan ziren, neretzat beinipein, Ereintza taldeak Ama-Birjin egunean botatako dantzak, eta kantak. Hoiek ere festetara etorri baziren, biajen ondorioa. Izugarrizko afaria egin omen zen estalpean -Zikiro jate, denetik edate-, eta Bretañako ikurriña izan genduen festetakua.

Organizazio aldetik, ez ziren festak oso borobilak atera, baino izan ziren eta beti bezala, denetako lekua eman zuten, sasi burrukentzat, dantza eta juergentzat.. jan eta edan ugari, eztabaidak... normal! Badira musiko talde baten partaideak, edo besteenak -bi izan ziren eta-

Eta politak ere uztailaren 18an ikusitakoak. Diputazioak bidali titiriteruak eta plazan izan genduen bai, bai teatro bai zine. Hori bai, erderaz! Iruinako burokratak ez dira gauza txikietaz preokupatzen!... eta hemengo batzuk ere. Gaua zela, juerga zela, ostatuko farolak eta zineko pantailak pagatu behar astoren baten zakarkeria.

Ez da dena, juerga, dantza eta antzekoa izan. Istripuak ere izan dira eta, XXgarren mendean garelako, mekanizatuak. Traktoreekin izan ziren bi ikare handiak. Biak, zorionez ikarian geldituak: traktoreak irauli eta azpian gidariak harrapatu. Bide eta malda traidoreak... parregurezkoa ere izan zen: traktore bat teilekin kargatua karreteraz, hor doa martxa ederrean. Holako batetan pasadorea askatu eta traktorea aurrera jarraitzen duela, karrua eta teilak muturrez. Ezkerrak karru gainean zihoana errefleju onekua zela!.

DONEZTEBE

DONEZTEBEN 17 IRAKASLE EUSKARA IKASTEN.

Inguru hauetako maisu-maistra erdaldunak euskara ikasten ari dira.

Aurtengo kurtsoan eskola emateari utzi diote, euskarari gogor heltzeko. Ea bada, aunitz ikasten duten eta hurrengo Ttipi-Ttapan heuren partehartze bizkorra agertzen den!

JUBILATUENTZAT LEKUA.

Malda-Errekako "adintuek" hemendik aintzinera izanen dute toki bat biltzeko eta egoteko. Aspaldian zebiltzan horren gibeletik; azkenean Donezteberko Udalak, behin behiniko herriko-etxe zaharrean lekua utzi die.

"Adintu" hauek ATERPE taldea bezala aurkeztu dira.

ITUREN



"HERRIKO-ETXEA" KANPOTIK BERRITUA.

Karrikan pasatzen den edozeinek ikusiko du Ittungo Herriko-Etxean obratan ari direla. Diputazioaren diru laguntzarekin ari dira, teilatuak berrituz, paretak konponduz... egia erran ederki utziko dute, etxe ederra baita. Baina, bakarrik kanpotik eta ez barrendik. Barrukoa konpontzea nonbait zailagoa izanen da, hasteko etxe erdia baino gehiago hila dago, erabilera egokirik ematen ez zaiolako, beste erdia berriz eskola leku eta eskolako haurren jantokia da eta ez batek eta ez besteak ez du hortarako kondiziorik betetzen. Herriko lokalerik ederrena ere etxe horretan dago, ostatu bezala erabiltzen da eta aste bukaeratan bakarrik idekitzeko. Beraz, Herriko-Etxea barrutik konpontzea beharrezkoa da eta batez ere benetan herrikoa izatea, hau da, herritarren erabilerako izatea. Hainbeste gauza eder egin daitezke horrelako etxe haundi batean!

SEGURITATE SOZIALA.- Aurten seguritate soziala herrietako kontsultatako materialetaz arduratzen hasi da. Hala ere, ez pentsa urrats handirik eman duenik, jeringak eta horratzak (erabilera batetarako direnak) bakarrik bidaltzen bait ditu. Dena dela, aseguratuak honen berri jakin behar du, horrela badaki indizioak hartzeagatik ez duela ezer ordaindu beharrik.

ESKOLA. Herriko-Etxeko obrak direla eta eskolako haurrak astebete beranduago hasiko dute ikasturtea.

Gurasoak eta irakasleak hartu dute erabaki hau, hain zuzen ere eskolako ataria eta herriko plaza (eskolako atsedenaldirako lekua) obrak ari diren bitartean arrisku leku direlako.

Aurten, Miguel maisua ez da etorriko klaseak ematera, hain zuzen ere Diputazioak antolatutako ikastaro batean parte hartzen ari delako. Ikastaro hori maisumaistrak euskara ikasteko antolatua izan da.



JOALDUNEN EGUNA

Azkeneko urtetan bezala, aurten ere, bertako Joaldunei omenaldi bat egin zitzaien. Egun ederra eta bikaina izan zen. Herritarrek inoiz baino parte handiagoa hartuz. Herri bazkarian, zikiroa jaten, 120 lagun bildu ziren; aizkora apustua, Lasagatarrek prestatua izan zen, Martintxo eta Apezene arteko laister-apustua, bertsolariak, txaranga, joaldun berak, dena arras ongi atera zen. Sukaldean serbitzen eta festa antolatzen aritu zirenei, zorionak!

AURTIZ



Uda akitzera zihoala, eskola hastera eta trixte xamar genbiltzan Aurtitz aldean, horrexegatik pentsatu genuen antzerki ttiki bat prestatzea; ez dakizue zelako lana egin genuen: batzuk ipuina aukeratzen, besteak jantziak prestatzen, besteak berriz dekorado delako hori egiten. Hau dena egin ondoren ensaio egin eta egin dexente xamar atera arte, azkenean denak neka nekatuak eta izerdi patsetan geundela ikusiz hurrengo egunerako uztea erabakitzen genuen.

Irailaren 14ean egin genuen antzespena nerbio pixka batzurekin baina gero nahiko ongi atera zen lehendabiziko aldia zela kontutan hartuz. Etorri zirenek badakite nolakoa izan zen eta gainerakoak etor zaitezte bestetan eta berriro ikusteko aukera ederra izanen duzue beste zenbait antzerki saiorekin batera. Gure aldetik bakarrik erran dezakegu pozik gelditu gineela eta eskerrak ematen dizkiogula etorri zirenei eta herri guztietan horrelakoak egitera animatzen dugula jende guztia, pena merezi duelako. ANIMATU!!

Bertze aldetik badakizue udako bestak akitzera doazela baina ez atzendu udazkenean ere besta egiteko aukera badagoela hemen Aurtitzen, San Martinetan, guk ahaleginak eginen ditugu ongi pasatzeko.

Hemen dugun azken berria hauxe izanen da; txistularia eta bertsolaria heuren laguntzaileekin batera karrika ondarrak losatzen ari direla, hortxe ibiltzen dira losa paratu eta bertsoa bota, zirikatu hemendik eta zirikatu handik baina egia da lana gogor egiten dute eta karrikak askoz ere politagoak daude.

ZUGARRAMURDI

ENZIERRO BAT. Zugarramurdin ez ditugu Sanferminak ospatzen, bainan lehengo aldian izan genuen zerbait enzierro iduri bat.

Afera hau da: Bazuen Martineko Juanek etxean sortutako behi bat beinere ez zena kanpora ateraia; eta lekuz aldatzeko tenorea ailegatu zitzaiolarik, ez zen ba, kanpoa ikustean emozionatu eta saltoka eta zalapartaka hasi alde batera eta bestera, inork ez zuela geldirik itxikitzen ahal. Xalbador jo eta bota zuen hantxe barna, Mertxe ez zuen jo baina hala ere erori zen bere ipurdiaren gainera (biharamunean ez omen zen jartzen ahal ere), eta eskapatu zen karrika beiti trostan zaldi bat bezala.

Joan ziren, bai, haren gibeletik bainan ez zuten harrapatu eta iluntzen hasia zenez gero libre utzi zuten gau guztia, "desfogatu" zedin. Biharamunean Xeberoren belaiean agertu zen, hantxe, lasai belar jaten, deus ez balitz gertatu bezala. Zeberok badaezpada ere libratu zituen belaiera bere behiak beste hura inguratzeko; eta akabo gure hixtorioa!!

Dudik gabe hori bakarrik izanen zen gure behiak eskatzen zuena, mendian barna paseo txiki bat.

PARTIDO INTERESGARRI HURA. Azkeneko Ttipi Ttapan galdetzen genuen zer pasatu ote zen pilota partido misterioso batekin. Oroitzen zarete? Jokalariak Daniel eta Pantxo ziren alde batetik eta Joxe Mari eta Pakorro bestetik, eta ez genekien zergatik bizpahiru miloi pezeta apostu egin ondoren iduri zuen pilotariak izitu zirela holako responsabilitatearekin.

Baina ez! Jakin dugu partidoa egin dela, hori bai, goiz batez, ixilka eta inork deus jakin gabe. Responsableak esan digutenez, hartu behar izan ziren holako neurriak partidoaren inportantziagatik, bestela ez zelako garantizatzen partidoaren desaroilo normala. Badaezpada, jakin dugu ere Nafarroako pilotarien federazionea ari dela aztertzen afera hau.

Eta jakin nahi baduzue, nik galdu nituen apostatutako nere 500 pezetak. Uste dut Pakorro eta Joxe Mari ez direla mozkor bezain pilotari onak.

HAU EZKIL ERGELA! Gure elizako dorreak baditu hiru ezkil, haietatik bat, ttiki eta airosa da, bestea bezpera eta San Miguel etortzen delarik baizik ez dena aditzen. Bestea ezkil serio eta galanta dugu, honen lana jendea elizara ekarraztea da. Eta hirugarrena berriz, arras ergela jarri zaigu. Bere denboretan ezkil normal bat izanen zen baina orain arrunt anormaldu zaigu: eta zergatik? arraildua omen delako.

Dudik gabe denborak ez du barkatzen, ez pertsonei eta ez ezkileei ere, eta holaxe herritarrek ezkil honen dandengatik lotsatu behar dugu, zeren ezkil honek jotzen ditu eliz dorreko erlojuaren orduak eta "Dum, dum, dum ...." eder bat egin beharrean, "Deng Deng, deng,.." ergel bat ateratzen zaio.



Herritarrak ia ohituratuak gaude soinu hontara eta ez zaigu arraroa iduritzen, baina kanpotarrek irriz lehertzen dire hori aditzean. Behin plazan eguerdiko hamabi dandak jotzen ari zirenean kanpotar bat hasi zen "alarmatua" eta txanzan esaten:
- Eh?, zer da hori? Nor ari da kazuela panpatzen?

XOTAREN KOTXE NAUTIKOA. Ondarreko Ttipi-Ttapa agertu zenean ederrak aditu behar izan nituen. Xota etorri zitzaidan:

- "Aizu Koro, ez ote dire nere kotxe nautikoaren trebetasunak Pakorroren pilota partidoa bezain inportantea?, nola da ez dituzula Ttipi-Ttapan kontatu?..

Bon, orduan Xota lasaitzeko orain kontatuko ditugu:

Badu Xotak kuatroelea oso moderno bat: silenziosua, ez du batere soinurik ateratzen; berez lau plazakoa da bainan sartu behar baldin badire 10 lagun, lasai, lasai sartzen ahal dire ohartu gabe; "autokros" modalitatekoa ematen du, zeren berdin zaio autopistan, astopistan edo Urbiako mendi kaskoan barna ibiltzea; ateak ere aldatzen ahal zaizkio batzutan ate txuriekin ibiliko da, bestetan gorriekin, eta bestetan aterik gabe, holako modernoa da eta.

Baina hau ez da ezer, haundiena zoragarriena, harrigarriena bere kualitate nautikoak dira, bai sinisten ahal duzue, egia da.

Lehendabizian deus ez genekien, bere jabeak ongi gordea zeukan kotxe honen habilitate hau baina egun batez Urdazubiko bestetara joan ginelarik, hantxe ikusten dugu plazan den ur presan Xotaren kotxea arrunt majo aparkatua: Aintzineko bi erruedak lur gainean, baina gibeleko beste biak urean sartuak, erdi zintzilika kotxea, uretik eskapatu nahiez bezala.

Eta hura izan zen gau guztiko komentarioa , "Bai, beazu, beazu, Zuamurdiar ero horrek nola utzia duen kotxea eta..."

Baina ez zen hemen gelditu afera hau: dantzaldia bukatu zenean, non aditzen ditugu burrunba animale batzuk (burrum, burrum, burrruuum...) eta ohiu eta irri batzuk. Zer pasatzen ote zen? hantxe ibilki zirela Xota eta Xeberiko (galtzak ederki doblaturik ez bustitzeko moduan) "kotxe nautikoan presan sartuak bira eta biraka urean, arrunt serio, autopista batean barna ibilki baldin baziren bezala...

Eta orain bai, zuek errexago sinisteko esan behar dugu presa honen zati gehienak ez duela metro erdi bat baino gehiago estaltzen. Hala ere ikusiko dugu nork gehiagok egiten duen horrelako gauza.

BAZTAN

ELIZONDOKO HERRIKO ALKATEAREN HAUZIAZ ERABAKIA HARTU DA.- Iruñeko "tribunal administrativo" delakoa, Pili Munarrizen alde atera da. Alkatesa izateaz batera Balleko etxeko langilea da. Guzti hau legearen kontra doa ezin bait ditu bi gauzak batera egin. Badirudi epaileek ez dutela horrela ikusi edo Iturraldek erosi egin dituela.

AMAIURKO ESKOLAKO IKASLEEK ERREBISTATXOA ATERA.- "Eskolako lagunak" deitutako aldizkaritxoa, Amaiurko mutiko eta neskatiko gaztettoen lana da. 33 orritan, hitzez eta marrazkiz sail desberdinak agertzen zaizkigu, hala nola, denbora, gaia, entrebista, iragarkia, denbora pasak, telebista eta berriak.

Gai batzuk aipatzekotan, hona hemen: "Kiwiren aldatzea" "serorarekin elkarrizketa" eta " kooperatibako nekazariak".

NAFARROAKO GOBERNUAK ORONOTZ MUGAIREKO BIDEGURUTZEAN IRAGARKI ELEBIDUNAK JARRI.- Duela gutxi Sakana aldean egindakoa, orain Baztanen. Lehen erdara hutsez zeuden iragarkiak. Ederki gelditu da baina ez luke horretan amaitu behar. Gobernuak jakin beza eskualde honetako iragarki guztiak erderaz daudela.

BALLEKO ETXEKO KONPONKETAK AINTZINA.- Ia berrogei eta hamazazpi milioiko presupuestoa duen obrak abiada bizian segitzen du bizkitartean eta konpontze lanak bukatu artio, Arizkunenea Jauregian jarri dituzte bulegoak.

ORONOTZ MUGAIREKO ARRAINTEGIEK ARRAINKUMEAK SALTZEN.- Nafarroako Gobernuaren menpe dagoen piszifactoriak 600.000 "jaramugo" salduko dizkie Kantabria, La Rioja eta Baskongadaseko komunitateei.

Xorroxin erreka.

BOZATEKO M.JESUS JAURENAK NAFARROAKO 200.000 ZENBAKI DUEN TELEFONOA .- Erregeak fite etorri zaizkio Bozatar andre honi. Telefonikak linea eta telefono gailua dohainik jarri dizkio.

HERRIETAKO BESTAK

ARIZKUN.

Urtero bezalaxe jende aunitz bildu zen. Programa aldaketa gutti: ZE ZEPELINen kontzertu ikusgarria.

ERRATZU.

Erearoaren azken egunetan Erratzuko bestak ditugu. Mugaz bertze aldeko jendea beti bezala. Iparraldeko euskaldunekin erlazionatzeko aukera ederra; bertze batzuren ustez, berriz, ligatzea ere errexagoa egiten omen da.

AZPILKUETA.

Herri honetan San Ferminen ohoretan ospatzen dituzte bestak. Lehenengoak; gero, San Andresak azaroa akaballan.

ELIZONDO.

Urteroko bestak nahiz eta aurten Pilik antolatuak. Eta hau nabaritzen zen naski. Orkesta txarragoak eta gainera erdaldunak. Eta bezperan istiluak. Herriko plazan Ikastolakoek ostatua jarri zuten; berdin Jarrai eta Xorroxin Irratikoek. Dirudienez, azken hauek ezin zuten hor deus paratu, iskanbila hasiz. Lehendabizi, alkatesak Udaletxekoguardak bidali zituen, gero guardia zibilak. Azkenean Jarrai eta Xorroxin Irratikoek beheitiko karrikako gorapetan jarri behar izan zituzten txoznak.

Guardia zibilak plaza inbaditu zuen; orduan Niko Etxartek esan zuen ez zuela musikarik joko indar errepresiboak handik lekutu arte. Eta hala gertatu zen.

ZIGA.

Basaburuko herri honetan ere badakite besta ederrik egiten. Nahiz eta Sunbillan ere martxa izan, baztandar aunitz bildu zen.

AMAIUR.

Abuztuko Amabirjinaren bestak. Urteroko ekintzak prestatu ziren: hala nola Baztan Zopak, Artzain Txakur Txapelketa (irabazlea Patxi Etxeberria izan zen, Pintxe zakurrarekin), Sokatira lehiaketa (Iparraldeko eta Hegoaldekoak), Txingak etabar.

Aurten gauzaberriak bagenituen: bertsolariak eta antzerkia. Bertsolariak bi egunez aritu ziren; batean, Argiñarena Anaiak eta bestean, gazteak.

XIRRIXTI MIRRIXTI, Baionako Antzerki Taldea gurekin izan genuen. Daniel Landart eta Pantxoa Etxegoinen lana, GAZTELUKO HIRU MUTXURDIÑAK antzestu zuten. Antzesteko leku itxia behar zenez eta Amaiurren pilotalekurik ez dagoenez, antolatzaileek pentsatu zuten Elizan egitea komenigarria zela. Hemen hasi ziren prolemak, apaizak ez bait zuen nahi Elizan egitea. Artzapezpikuarengana jo behar izan zen. Itzuli aunitz eman ondoren, Amabirjina Pilarekoaren ermitan eman zen, aintzinetik apaiz "inkisidore"aren zentsura jasanez. Ehun eta berrogeita hamar lagunek une ederrak pasatzeko aukera izan zuen.

Urtero bezala, herriko alkateak Iturralde gonbidatu zuen "lunch"-era. Eta bai bertzea etorri ere. Zertarako gonbidatu? Alkate Jauna, bestetako batzordeak igorritako izkribuaren arrapostua, non da? Zakarrontzian seguruenik.

ORONOTZMUGAIRE.

Hemen ere Amabirjinak ospatzen dituzte. Erran daiteke gero eta besta hobeak egiten dituztela.

LEKAROTZ.

"San Bartolome, zartagi zaharrean tortille mehe" horrela dio erranairo xaharrak. Jendetza izugarria bildu zen, herrirako errepidean etenak sortuz. Lehen, Olabidean ere ospatzen ziren; orain horiek ere galdu dira.

ARRAIOTZ.

Arraioztarrek bestak Abuztutik irailera pasatu zituztenetik, BaztanBidasoa eskualdeko jendea biltzen du. Txingak, lasterkariak, bertsolariak, kantaldiak etabar sartzen dira programan.

ELBETE.

Buruilaren erdialdean Santa Kruz. Inguruko herrietan bestarik ez denez, mundu bat jende biltzen da. Bestetako programa erdera utsez agertzen da. Hau diskriminazio nabarmena da, euskaldunak marjinatuak gelditzen bait gara; gainera, kazike haundi horiei arrazoia ematen zaie.

BAZTANDARREN BILTZARRA

Urtero ospatzen den besta pollit honetan sekulan baino jende gehiagok hartu zuen parte. Goizeko hamaikak aldera Baztan bailara osatzen duten herri bakoitxeko karrozen desfilea hasi zen. Argazkian ikusten den bezala, festa giro eder batean suertatu zen. Ondoren herri bazkaria izan zen, bertan alde guzietako ehundaka euskaldun elkartu zelarik. Baina... beti badago holako besta bikaina izorratuko duen baina bat eta oraingoan ez zuten guttiago izan nahi eta hain hasiera polita eta alaia izan zuen jai honek bukaera triste eta negargarria gertatu zitzaion. Ez zen guttiagorako izan, poliziak eta bere atzetik dagoen eta denok ezagutzen dugun mamutzar horrek eman zioten ustekabeko amaiera hori, hainbat atxilotu eta kolpatu izan zelarik.

AUZOLANA

Tuuuu..... Tuuuu.... Tuuu....

"Bihar goizeko zortziretako
herriko plazara joateko
herriko bideak
ongi paratu behar direla
eta auzolanean eginen dela"

Tuuuu..... Tuuuuu.....Tuuuu....

Albinteak bandua bota du auzolanera deituz. Baina, zer da auzolana? eta batek hau erantzun dit: herriendako egiten den lana da, pistak konpondu, bideak egin, errekak garbitu, edozein lan herritar guztien onerako egiten dena.

Auzolana, hamaika aldiz entzundako hitza hauxe! Baina auzolanetaz zer gehiago dakigu? Egia erran ez askorik eta horregatik herritar batengana jo dugu, ea berak zer argitzen digun.

Ttipi-Ttapa.- Noiz hasi zinen auzolanera joaten?.

Herritarra.- Arrunt gazterik, hamabi edo hamahiru urterekin, etxean ni bakarrik nintzen gizasemea. Aita zena berriz adintua, ez zen gauza lan hori egiteko eta ni joaten nintzen horrara, Trinitateko bide horiek eta egitera. Bertzela, ez bazinen joaten denuntzia ematen zuten eta asko dirurik ez zen izaten orduan denuntzi hura pagatzeko.

T-T.- Eta obligazione gisa joaten al zineten?

H.- Auzolanera kontent joaten ginen; bai, obligazionea ere bai baina gero gauean parra gogorrak egiten genituen, izaten ziren zaharrak, txistosoak eta haiekin hemen, gure Herriko-Etxean, hemen bai! 30 lagun hor, salan, mahai haundiak paratzen zituzten eta besta guk.



Orduan tragua eta sardinxahar bat izaten zen, bertze batzutan sobratzen bazen gazteei ematen zioten, badakizu zaharrak ere ia aspertuxek eta gu berriz erdi goseak izaten ginen eta bi xardin jan izan genituen, ardo pixka eta mozkortzera ere ailegatu gara. Eta biharamonean berriz joan behar.

T-T.- Denuntzi hori nork paratzen zuen?.

H.- Ba, Herriak "Aiuntamentuak". Gauean tragua egiten zelarik, albintea han izaten zen eta lista pasatzen zuten, etxe guzietakoa eta falta zena markatzen zuten gero kobratzera joateko. Eta tragua egitera ez bazen joan, bertzeek "han zen" erraten zuten.

T-T.- Etxe bakoitzatik zenbat lagun joaten zen?.

H.- Lagun bat joaten zen. Gero izaten ziren etxeak, aunitz etxe joaten ez zirenak, baina pagatu egin behar zuten 5 duro edo, ez dakit zenbat eguneko, igual guttiago. Baina, horiek bazuten pagatzeko eta guk ez genuen izaten.

T-T.- Hasi berri hartan, nola egiten ziren auzolanak?

H.- Orduan zaharrak izaten ziren, "Aiuntamentukoak" eta zaharragoak kalzadak egiten eta gu berriz haiei harria hurbildu eta hala, ikusiz ikasi egin genuen. Aritu gera geroztik geu ere kalzada aunitz egiten. Gero, bide haiei kasu egiten ibiltzen ginen. Su egurra eta hortik ekartzen genuen, Trinitate azpiko pagadi hortatik, behiekin ekartzen bait genduen orduan, eta bideak ongi paratu behar, bertzela gaizki ibiltzen ginen eta.

Gero, Ameztiko bide hau ere auzolanetan egiten zen, lerarekin ibiltzen bait ginen, behiek uztarrian, orduan ez zen izaten mandorik edo abererik, izaten ziren bainan ez usatzen.

Aparte, konpazio, hor lau egun egiten bagenituen plantaziotan bertze bi ailegatu gara egitera, bi egun segidun ere. Iguarlako landan izaten ziren mintegiak, herriak paratuak eta hortik haritza plantak bizkarrean hartu eta Mirokabitara eraman eta han zuluak egin, igual 15 edo 20 lagun zuloak egiten eta bertzeak bizkarka, aldian planta bat eramanaz. Eta hor dira orain hariztiak, hor agertzen dira guk paratuak

Eliza bidea egitera ere igual tokatzen zen, behiekin legarra eraman eta denean botaz, orduan, legarra Dorrondoko zubi ondoko hortatik, ur bazterretik harri kaxkailoa ateratzen aritzen ginen, karrukin igual 8 edo 10 behi pare egun guztian.



T-T.- Zenbat egun egiten zenituen auzolanean?

H.- Urtean 6 egun izaten ziren etxe bakoitzanak.

T-T.- Nork erraten zuen zer lan edo nola egin behar zen?

H.- "Aiuntamentukoak" izaten ziren. Lanean ari ginelarik haiek erraten zutena hura egin behar zen. Erraten bazuten: "zoazi ekartzera egur bat" eta joan behar zenuen, edo "hemen paratu behar dugu eta kalzada egin"

eta horrela. Orduan, harrizko kalzadak ziren. Gero ailegatu naiz, neroni "Aiuntamentu" izatera eta auzolanera joan , hor gora eta ez zen egiten lehen bezalako kalzadarik, bota lurra zuloetara eta altxurrakin pasa, geroztik ez da harrizko kalzadarik egiten. Eta kasorik egin ez zaielako, urak eraman ditu. Orain ez da egurra ekartzen lehen bezala eta orduan bide onak beharrezkoak ziren.

T-T.- Auzolana, noiztik ikusi duzu bajan doala?

H.- Ba, kasu horrek baditu 20 bat urte. Orduan ezagutu nuen nik baja, jendeak ez zuela lanik egin nahi. Ezagutu nuen bideak eta galtzera zihoaztela eta ia geroztik ez da gehiago jarraitu bideak eta ongi egiten. Orain ez da lehen bezala egiten baina nahitaez egin beharko da hori, etxe bakoitzak 6 auzolan zor bait ditu eta ez dugu egiten batere, dena dago utzia, ez dago lehengo elkartasunik. Orain, noiz behinka deitzen da baina espantu gogorra bota eta ez da inor joaten, lehengo unionea joaten zen jendea pilaka. Bandoa botatzen zuten, 8retako Iturengo Plazara joateko erranaz eta hortik errepartitzen ziren, zaharrezkonak beheran geldituz, (Arrutelatik hemen, inguru hauetan) eta gaztea gora joaten zen. Zahar bat edo beste buru eta kalzada kontu egiten zuena gora joaten zen. Eta harek erraten zuena egin. Horrela kalzadak egiten hasten ziren eta egiten zituzten.

Eta gero gu ailegatu ginelarik, ia beranduago joaten zen eta gora joan eta gosaldu, behera etorri eta bazkaldu eta zer egiten zen? Erreka pixka bat garbitu, lur pixka bat bota zuloetara eta harri bat ere ez gainean eta urak eramaten zituen gero. Harri kalzadak ez ditu urak eramaten baina lurra eramaten du airean.

T-T.- Eta orain nork erraten du lan bat auzolanean egin behar dela?

H.- Segun, ba materiala ekarriz gero, elkarrekin egon eta "Aiuntamentuari" erran: zuek ekartzen baduzue legarra guk eginen dugu auzolana? eta horrelaxe aritzen gara, baina lehen lehenago legarra ere guk ateratzen genuen.

T-T.- Bertze herrietan nola egiten da?

H.- Hemen bezala izanen da.

Sunbilan, aurten aditu dut, karrikak eta arreglatu nahi eta bandua bota eta ez joaten jenderik. Hori dela eta, hasi omen dira kobratzen 2.000 pzta. eguneko joaten ez denari





Eta omen dira aunitz gazte dirurik gabe dagoena, eta batek erraten dio konpazione, "familiarik ez dut eta joanen zara zu?" horrela herriari ordaindu beharrean gazteei egiten diotenak.

T-T.- Trinitateko ermita mendiaren tontorrean dago. (Mendaurren, hain zuzen, 1136 metrotara) eta hura ere auzolanean berritu zela aditu izan dut, nola izan zen hori?

H.- Bai, hori lehen borda zahar bat bezalakoa zen, santuak eta lehengo berak dira. Ermita zaharra ere leku berean zegoen eta berritu behar zela erran zen eta hala, jendea biltzen hasi zen eta kapritxoan hartu eta egina dago. Nola egin behar zen ere pentsatu zen, aberekin, astokin eta harmasa aterako zela goitti (25 tonelada legarra atera zen eta 2 biaje ailegatu ginen jai batetan egitera, Iturengo elizatik ermitaraino).

Jai batetan dena urratu genduen eta hori lau orduko lana izan zen. Horrela hasi eta jendea, hau edo hori egiteko bere borondatez atera zen. Hala batzuk zurajia haizkoraz, bertzeak zurak behar ziren bezala arpanaz tronkatuz eta kapiriuak eta egin eta han bertan zerratzen zen. Arginak, herrikoak ziren, Zubietarrak bat edo bertze. Pareta egiteko Ittundarrak eta teilatuan losak eta paratzeko Zubietarrak. Igeltseroak ere bere lana egin zuten. Baina dena auzolanean, masa eta dena eskuz egin zen 1963. urtean berritua zegoen.

T-T.- Zenbat denboraz egin zenuen?

H.- Nik igual eginen nuen hilabete egunero joanez. Egun guztia han ginen. Trinitateko hau apartekoa zen e? ordurako auzolanak galduak ziren. Ez zen ia egiten fundamenturik. Orduan ere bide txarrekin eta abereendako pixka bat moldatu ziren, txandaka eta pixka bat lurra botarik, guritu aisago ibiltzeko, baina, bideak eta abandonatuak ziren ordurako hondatuak.

T-T.- Eta Trinitatea bukatua egon zelarik ...?

H.- Dirua bildu zen, herri aunitzek eman zuten eta plazan, Palazioko atarian bazkari ederra egin genuen, bertsolari eta guzti. Bazkaria ez naiz oroitzen zer genuen, ez zen txuletarik behinik behin, axuria edo bildotsa izanen zen. Herri aunitzetakoak baziren, bat arotza zela bertzea ez dakit zer, denak konbidatuak, lanean aritu ziren guztiak.

Iturenen 1983. urtean jasoa

EUSKADIN GAUR

1984 ko Ekaina aldean, eta aldizkari honen egunkari anai batean zera idatzi nuen: "Nazionalistak" berri bat bihurtu direla. Eta horren arrazoia hau da: haien barnean hausketa bat, eszisio bat gauzatzen ari dela. Barne kontraesan aunitz eta garrantzitsuen ondorio lojikoa. E.A.J., betidanik, euskal burgesiaren ordezkari izan da eta frankoren heriotzaren ondorengo joera "pactista", españolista izateaz gain guztiz agerian gelditu da.

Lojikoa zen egun haietan askok ez sinistea, baina unea heldu da. Une gogorra eta larria, baina merezitua, ongi merezitua.

****

E.A.J.k urte gehiegi darama ordezkatzen dituen interesei gibela emanez. Politikoki, lotsagabe moduan ari da jokatzen, eta pix kanaka pixkanaka traidore izena irabaztea lortu du, eta honen ondorioz, herria bizkarra ematen ari zaio.

"Itaun antieuskalduna" edo "pacto de legislatura" delakoaren arrazoiak azaltzeko, Lehendakariak argudio hauek eman ditu: " No es la razón de la ingobernabilidad (32-32), sino que procede negociar con el PSOE porque es quien detenta el poder".

Artzalluzek eta Ardantzak OTAN erreferenduma zela eta izan zuten jarrera lotsagabeak erantzun gogor eta abertzalea jaso zuen, alde batetik erantzun honek lortu zituen botante gehienak eta bestetik oraindik konfidantza gordetzen ziotenen artean distantzia handitu egin du.

E.A.J.ren historia, baseetako hainbaten nazionalismoa eta burukideen españolismoaren arteko anbiguetate iraunkorrak "apaintzen" du.

E.A.J. sekulako porrota egin du "guerra del norte" delakoa ezabatzeko duen projektua. Bertan "español estatu demokratikoa", legitimatzen lagundu nahi zuen, eta horren bidez baskongadetan Madrilen ordezkari nagusi eta bakarra izatea lortu.

Ardantzak hau esan zuen: "El Lehendakari es el representante del Estado en el Pais Vasco y por ello tiene derechos y obligaciones, y si lo es, lo será para todo o para nada".

Ezin dugu ahaztu orain dela urte gutxi, E.A.J. abstentzioa eta konstituzio español, zentralista eta antieuskalduna ez onartze publikoa eskatzen zuela. Gaur, ofizialistek bezala kritikoek, harekiko menpekotasuna onartzen dute; Ardantzak T.V.E.ko kamararen eta militar goi karguen aurrean zin egin bazuen ere, gaur "kritikoa" den Marcos Vizcayak españoltzat hartuz bere burua, Madrilen hau proposatzen zuen: "Que Euskadi se sienta cómoda en España".

Eta gaur aukera politiko abertzale, progresista eta autodeterminazioaren aldeko moduan agertu nahi dute.

Hain aldaketa sakona eta adina egin dutenei buruz, zalantzak edukitzea normala iduritzen zait. Gogoratzen dut "Nafar expulsatuak" orain dela 3 hilabete ziotena: "Nuestro objetivo es el reagrupamiento; de momento no tenemos un proyecto político concreto".

Nik zera erantsiko nuke: "Donde no hay mata no hay patata".

Onartu behar da zein triste izan behar den E.A.J.ko baseko abertzaleentzat "hauen gobernuak" ez duela gobernatzen ikustea. Retolaza ez dela ministroa, ez kontseilaria, ez duela antzeko erantzunkizunik ere eta desilusioa eta amorrazioa sentitu behar, barne kontselari ospetsuak barkamena eskatu behar diolako PSOEri Donostiako Ertzantzaren untzi batean ikurrina jartzeagatik. Areago, publikoki aitortu behar "akats" bat izan dela eta erantzuleak espedientatu.

Nola ez die gure Herriak bizkarra emango Udaletxeetako ikurrinak kentzen dituztenei? Are gehiago arrazoi triste hau dela eta Ertzantza heuren lagun eta senideen aurkajartzera behartzen dutenei.

****

Orain "krisisa" deitzen diote, batak besteari traidore esanez. Ez dago horrelako krisisarik. Porrota dago. Bi alde (Napar eta Baskongadatar Estatutoak) zituen projektu politiko errejionalistaren izugarriz ko porrota.

Eta traidoreak baldin badaude, haien herriaren konfidantzari traizioa egiteagatik daude.

****

Guztiz lojikoa da, eta beraz ez gaitu harritzen ETArekin "negoziazio politikoa" egitearen aurkakoak Español alderdiak bakarrik izatea. Arrazoia garbi dago: badira españolak izan gabe elkarren interesak hau da, españolistak, defendatzen dituzten alderdiak.

Negoziazioaren ondorioz alderdi españolista hauetako batzuk (abertzale deitu arren) desagertu egingo lirateke, historiara pasatuz iruzur moduan, kaparra baten erara.

Besteentzat, haien nagusitasun luzearen bukaeran litzateke. Denbora luzean hartu duten "jestionatzeko" ohitura da haien arrazoia, (negoziaketa hori) sabotaiatzen saiatzeko, ahal duten neurrian. Beraiek ere bait dakite, ezinezkoa bihurtzea ez dagoela haien esku.

J. Etxebeltzea.

ETXEBIZITZAK GURE ESKUALDEAN

Gaur egun jadanik, herri askotan eginak dituzte nolabaiteko Plangintza Orokorrak, eraikintza berriak bideratzeko. Beste zenbaitzutan , ia inolako Plangintzarik gabe dabiltza oraindik.

Plangintza hauek -Normas subsidiarias- delakoen bitartez zehazten dira. Zer diren horiek? Ba, hitzak berak dioen bezala, etxegintza bideratzeko lagungarri diren arauak definitzea. Hauek ongi eta serioki egiteko, guttienez zera batzuk kontutan eduki behar lituzkete:

- Herriaren ikerketa sozio-ekonomikoa; horren ondorioz jakiteko, zein lekutan komeni den etxe berriak eraikitzea, eta zein diren berriz, nekazariak eta herritarrak, lan egiteko eta bizitzeko beharrezko dituzten lekuak e.a.

- Datozen urteetan zenbat etxe berri egingo diren aurreikuste edo prebisio fidagarria.

- Zona industrialentzako tokiak mugatzea eta definitzea.

- Bertako etxeen bereiztasunak zaintzea, eta honen eraberara eraikitzeko arauak finkatzea.

Orain arte aipatutako arloei dagozkien arautegia eginez eta, herri bakoitzeko bereiztasunekin osatuz, Plangintza Orokor bat zehazteko lehen urratsak emanak izanen litzatekeen.

ETXEBIZITZA KOLEKTIBO GEHIEGI

Baztan-Bidasoa-Maldaerrekako herri nagusiei begirada bat ematen badiegu, laister ohartuko gara, zein eragin negatiboa izan duten etxebizitza kolektibo hauek herri horiengan. Bai noski, herrixka polit hauen estetika, lur jota geratu baita kasu guztietan. Kolore eta itxura arraroetako etxe mastodontiko horiek, ez dute





ia ezer positiborik suposatu herriarentzat. Hori bai, zenbait etxegilek, bere biziko fortuna ateri dute hainbat espekulazioekin.

Dirudienez, hemengo joera etxegintzari dagokionez, eta Europakoarekin gonparatuz, oso alderantzizkoa izan da. Nazio horietan %70 etxebizitza bakarrakoak eraikitzen dituzten bitartean, hemen %3 bakarrik dira bizitza bakarrakoak, eta gainezkoak noski, etxebizitza kolektiboak. Honen arrazoia neurri handi batean noski, lur eremuak jasan duten espekulazioan dago. Azken urteetako lur eskariaren areagotzeari aurre egiteko, ez dira kapaz izan Udaletxeak. Gehienak aspaldiko Plangintza Orokorrei lotuak zeudenez, eta lur eskaria areagotzen ari zela ikusita, gero eta lur eremu handiagoak hasi ziren exigitzen, etxe berriak eraikitzeko. Hori izan da seguraski, errorerik handiena.

Kontutan eduki behar dugu, herri bateko hirigintzari dagozkion arauak herri horren egoera edo garai hortako errealitateari lotua dagoela, eta ordun gertatu zen bezala, herriaren egoera aldatzen hasi zenean, nolabait Plangintza Orokorraren eta gaineko arautegi guztien berrikustapena zen bidezkoa. Hasiera batean, 2000 m2 ko eremua behar zen, gero bost, gero hamar, gero azkenik 20000 m2 etarakoa exigitu izan dute zenbait Udaletxek. Eta politika honek arazo ugari sortu ditu zenbait herritan. Hasteko lur eremu bat erostea etxe bat eraikitzeko, oso garestia bilakatu da. 20.000 m2k diru anitz balio dute, eta ez dago edonoren eskuetan erostea, aberatsentzat ez ezik.

Holako egoerak, nekazaritzarako ezin hobeagoak eta bestaldetik hain urriak diren lurrak guttitzen ari ditu.

EUROPAN JARRAITU DUTEN BIDEA

Oso modu diferentez bideratu dute Europan etxegintza. Hasteko, bizitza bakarreko etxeak, askoz ere gehiago bultzatu dituzte. 500 m2ko lur eremuak aski daiteke etxebizitza bat eraikitzeko, eta baita ere, lurraren m2ko prezioa askoz ere merkeagoa da. Modu horretara lortu dute familia gehienak, bizitza bakarrako etxeetan bizitzea. Baita ere, kondizio ezin hobeagotan zaintzea herri bazterreko lurrak, nekazaritzarako balio diezaieten.

J.M.

LESAKAKO SAN ANTON

Erortzen utzi edo berritu ?

Lesakatik Oiartzunarako bidean eskuinaldera, Aiako-Harrien azpian, Kopako magaletan, San Anton. Inguru hontakoa bazara, jakinen duzu zeretaz ari natzaizun. Garai batez makina bilkura, gozamen, larrialdi eta karrakilen testigu, Endara-Errekaren zaindari kuttuna, San Anton, gaur isil eta kuzkur, berak zaindutako errekara amiltzeko bildur, udazkeneko lainoen artean agure zelatari.

Eta, aiton zahar abandonatua, erortzera utzi edo altxa beharko genuke?. Hona ziplo galdera, duela igande pare bat bertatik nenbillela neure buruari egiten nion galdera bera. Eta erantzutekotan, oraintxe erantzun beharko genio galdera horri.

Erortzen utzi?. Berretu? Bertze San Anton txukun eta xarmangarriago bat inguruetan eraiki, artzai, baserritar eta mendizaleen gorape?.

Baina, ba ote du San Anton-ek inungo "baliorik", salbatzea, eustea edo berreskuratzea merezi duenik?.

Noski, ez dut erranen zoko suspel eta heze hau munduko parajerik ederrena denik, nahiz eta ederra izan. Aipatutako eliza edo ermita ere ez da Erromako San Pedro.

Orduan, ez ote gaitu ba erromantizismo zirtzil batek mugitzen?.

Nik dakidana azalduko, eta zuk zeuk aztertu eta epaitu.

San Anton, erlijio ikuspuntu batetik: urte pare batez hango mezalaguntzaile izan nintzenez, aitortu dezaket San Anton zaharrengan fede berezi bat sumatzen zutela bertako eta inguruko herritako baserritar eta kaletar aunitzek. Promesak, kandelak, meza-sariak... lerroka igandero. Neu lekuko. Gaur egun, ez dakit. Santu zahar hura ebatsi zuten aspaldisko (nik erraten nuen berak egin zuela alde, ospa, zirritu eta ittosuraz betetako eliza narrats hartatik). Dena dela, ez naiz ni pertsonarik egokiena erlijio balioa aztertzeko. "Doctores tiene..." (eta inoiz ez hobeto errana).

San Anton, historikoki: badirudi XVI. gizaldian zutik zegola ordukotz San Anton ermita bat han (duela 400 urte). F. Perez Ollo historigileak dionez, 1613.urtean auzotarrek igandetako meza bertan ematea lortu zuten negu parterako (ez zioten baimena errax eman, eta gainera apaiza eta gastu guztiek auzotarren kargu). 1679. urteko dokumentu batean ere berriz azaltzen zaigu bertako ermita. Iduri duenez (Perez Ollok dio), bestatan ahari eder bat hil eta jaten zuten auzotarrek ermitan bertan santuaren eguna ospatzeko. Eta Lesakako Elizak debekatu egin zien ermitan barruan holakorik egitea.
1924.urtean erre egin omen (sua eman egin zioten) eta orduko eliza kiskalduaren gainean berri bat altxatu, Felix Etxeberri erretore zela.

San Anton: arlo soziala. Leku hau bidegurutze bat da, Oiartzun, Irun eta Lesakaren artean dagoen erdigune bat. Eta bidegurutze zelako eraiki izanen zuten seguraski ermita hura, bidegurutzeak jendeen elkargune, bilkura toki eta lokarri bilakatzen bait dira. Aunitz dakite puntu hontaz zama bizkarrean gauaz lan egin behar izaten zutenek. Aunitz jakin ere San Antonetaz Oiartzunara ezkondutako lesakar eta Lesakara ezkondutako oiartzuar senar eta emazteek. Sozialki, bizpahiru herri hauen arteko zubi bat izan da San Anton. Eta mila gertakizun eta historio erran diteke hortaz.

Gaur egun, afera zera da: uharka edo presa batek irentsiko duela oso laister hango zoko hura, larre, landa eta baserri. Etxe berriak eraiki dituzte gorago. Eliza edo ermita, ordea, uraren muga-mugan geratuko da. Ia gaurkoz erdi eroria, ez dut uste egoera berriaren enbata jasateko gai izanen denik.

Oraintxe ba, hortaz, erantzuteko ordua: edo San Anton ermita dagoen bezala bertan uzten dugu, eta, Txirritak andaluzaren paretataz zion bezala: bera erori duk, ez zaiok bultza. Edo neurriak hartzen hasteko ordua iritsi da.

Zu zeu erantzule.

Antton.

bizitzaren

txokoak



Ezkondu nintzen egunean, oroitzen naiz, zorionak eman zizkidaten. Amak ere horrela eman zizkidan. Hala ere, bakarka gelditu ginen une batean, hauxe erran zidan inongo garrantzirik adierazi gabe: "Senarrari kontrarik egin gabe pasatzen baldin baduzu hobe, gutxiago sufrituko duzu eta...". Entzun, ez entzuna egin nion, ni pozik bait nengoen, apain jantzita, ezpainak ere lehen aldiz pintatuak... Nere onetan sartzen ere ez nintzela. 28 urte bete berriak nituen "garai egokia ezkontzeko" erraten zidaten. Bai, nik ere horrelako zerbait pentsatzen nuen. Ordu arte neskato egona eta etxeko lanetaz aski ongi ikasia, baina, bizi guztia hortan aritzea, neskame izatea... sobera ezin luzatu. Ezkontzea zen irtenbide bakarra.

Beraz, ezkontzean nik nerea bilatu nuela eta... aurrera!.Senarra adin berekoa zen, gizaseme jatorra, langilea eta .... Gure etxekoak ere horrela zioten, mutil fina zela ba.

Horrela bada, senarraren baserrira ezkondu nintzen, egia erran, etxekoaz aparte, herrian ez nuen ia inor ere ezagutzen. Jaiotzez , aparteko herri batekoa nintzen, Altsasukoa, eta neskato bezala Hondarrabian lana egiten ari nintzen, senarra ezagutu nuenean. Elkar ezagutzea ere nahiko berezia izan zen, hain zuzen ere, nere anaia bere arrebarekin ezkontzeko egunean. Egun horretan, ni ez ongi suertatu nintzen eta gero gure gela izan behar zuen hartara eraman ninduten. Han geundela, norbaiti gogoratu zitzaion ezkonberrien lore sorta nere orkatiletatik pasatuz gero sendatu egingo nintzela eta... Lore sorta horren bila joan ziren...Lore sortakin azaldu zenarekin ezkonduko nintzen handik urte terdira. Bitarte horretan, igande arratsaldez ikusten genuen elkar. Bera, Bidasoa honetako herri ttiki batetakoa zen eta bizikletaz joaten zitzaidan nere arratsalde libretan. Ordu batzuz besterik ez ginen egoten elkarrekin. Hondarrabiko itsas bazterrak ibiltzen genituen. Bera, bizikleta eskutan zuela eta ni eskuak ere ez nekiela non sartu. Ederki oroitzen naiz, jersea txukun doleztatuta eta besoan eramanez. Orduan, orain baino tenteago ibiliko nintzen, bai! Beno dena dela gustora egoten nintzen berarekin, bere solasaldiak entzuten, bere kezkak nereganatzen, horrela astea aisago pasatzen zitzaidan. Baserrian bizi nahi zuen, argi zeukan. Fabrikan hilabete pare bat egina zeukan baina... hor ezin zuela zion. Berak nagusirik

ez zuela nahi, nahiago zuela euria, eguzkia, edo elurraren menpean egon eta. Berarekin joanen nintzen bada. Baserrian, etxeko lanak besterik ez nituela egin beharko zioen. Eta nere burutan berriz hauxe: "besteentzat lanean aritzea edo norberetzat aritzea ez dela gauza bera" ikusten nuen. Beti ere, nere lana etxean geldituko zen, etxerako lana.

Amagiarreba erdi eri zegoen eta ez zen gauza etxeko martxa eramateko. Ni berriz, sasoiean eta etxea garbi edukitzea, arropak pronto, otorduak prestatzea etabar, nere egin beharrak bihurtu ziren. Baina hasi bezain abudo, zera ohartu nintzen, garbitasunean ez zekitela bizitzen. Nere lana ez zela nabaritzen ere. Alper lana zela. Eta etxe hortako ohiturak aldatzea berriz... pentsatu ezina.

Denbora gutxi baino lehen hauzokotaz arduratu erazi ninduten. Hortan atautxi zen bizkorra. Bera hasten bait zen holako honetaz edo haretaz mintzatzen, zirikatzen. Eginak eta ez eginak aipatzen. Okerrena geroxeago izan zen, beste emakumezkoekin konparatzen bait ninduen. "Hango etxeko andreak, etxeko lanak utzi eta hor aritzen da, baratzakoak egiten. Etxeko lanak... zera! Baserria ez da inoiz kale etxea izanen eta".

Nik hasieran ez nion kaso handirik egiten, hori bakarrik falta zitzaidan. Senarrak ere lasai egoteko erraten zidan, afaria, gosaria, bazkaria pronto edukitzean nahikoa egiten nuela eta. Hala ere, berari laguntzera joan nahi izanez gero... ba joateko. Eta... hor ustegabean sartu nintzen, sartu behar ez nuen lekuan. Etxeko lanak ez zuten inportantzirik kanpora joateko orduan baina etxera itzultzean... nere gain zeuden. Egoera honetatik ateratzea egunetik egunera zailagoa egiten zitzaidan.

Haurdun gelditu nintzen, eta senarrari laguntzen ari nintzen batean haur hori galdu. Familia sortu nahi eta be-

rriz ere haurdun, kuidado pixka bat gehiago hartuz, ba bost seme alaba izan genituen. Hiru zaharrenak neskak, mutilek bi azkenekoak.

Familia izatearekin egoera zertxobait aldatuko zitzaidalakoan baldin ba nengoen... ba ederki nengoen. Berdin jarraitu bait zuen.

Alaba zaharrena kanpora estudiatzera joan zitzaidanerako ez zitzaidan bizitzeko ilusio pitxarrik ere gelditzen.

Amak errandakoaz behin baino gehiagotan oroitu ere egin nintzen. Ez zuela merezi senarrari kontra egitea, ez zuela merezi hasarre egotea... ez zuen mereziko baina horrela jarraitzea ere. Baina zer egin behar nuen? Hasiera batean nere burua senarrak besterik ez zuen onartzen, bera zen nere lana goraipatzen zuena, baina nik erakutsi ondoren. Horrexek balio zidan, horrexek ematen zioen sentidoa neure biziari. Azken finean, nolabait ohartu nintzen, nik ematen niola sentidoa denari.

Bitartean, gauza guztiei denbora pasatzen utzi diet. Denboraren poderioan joanen direla joan behar dutenak eta etorri berriz... etortzekoak.

Orain 65 urte bete berriak ditut eta pentsioa kobratzen hasia naiz. Lehenbiziko aldiz "nere" soldata kobratu banuen bezalaxe sentitzen naiz. Lehendabiziko diru horrekin alabei oparitxo bana egin diet.

Alaba zaharrenak aspaldi erran zidan ez zela ezkonduko "ezkondu?", ezkontzeko beharrik ere ez duzu" erantzun nion, bere lana, eta bere soldata, badu eta.

Beste alabak berriz, kilo batzuk kentzeko eta apaintzeko erraten dit. Lehengo batean, jan-neurri egokia ekarri zidan paper batean idatzia eta hori egiteko zioen. Beharbada arrazoia du, baina hainbeste urtez utzi dudana orain hastea... gogoak bai, gogoak ongi erantzuten dit baina gorputzak, gorputza zaintzeak ere merezi ote dit? Eta jakinik ez didala behar bezala erantzungo?.

Hirugarrenak berriz, aste batetarako baserritik atera eta oporretara eraman ninduen orain duela hilabete batzuk. Lehenbiziko aldiz aeroplanoz ibili nintzen, hondartza bazterrean paseatu, besteak prestatutakoa jan, kafeterien terrazetan jarri eta jendeari begira egon, alabarekin paseatu eta...

Orain baserrian nago berriz ere, nere senarrarekin, seme bat ere gurekin bizi da eta baita koinata ere. Hau marmota hutsa egina dago. Ezin eramana izugarria du. Baina hori bai, lehen baino lasaiago bizi naiz, bait badakit beste modu batetara bizitzeko gauza naizela eta hala ere bizimodu hau aukeratu dudala. Tristeena zera da, nere senarrak ez dakiela nere erabakiaren berri, eta erranda ere ez luke ulertuko. Lastima!. Bera betiko moduan dabil ahal duen arte lanean jarraituko duela erranez.

A.Z.

ZE ZEPELIN

ROCK TALDEA, BAZTANEN.



San Juan bezperan eta Arizkungo besten barnean GAU-ROCK pasa antolatu zen. Ameriketako talde famatu bat lehenengo aldiz zetorren Euskal Herrira.

Gure artean, talde honen partaideak aski ezagunak dira, hona hemen:

.Bateria: J.M. Karrikaburu, Kaliforniakoa.
.Gitarra Baxua: Joxemi Iriarte, Texasekoa.
.Solista: Mikel Iriarte, Los Angeleskoa.
.Organoa: Kotte Lizartza, Nueva Yorkekoa.
.Ritmika: Xabier Jaurena, Floridakoa.
.Kantaria: Iosu Jaurena, Holliwoodekoa.

Propaganda ederra egina zitzaien Baztango herri gehienetan kartelak banatuak bait ziren. Ikusi ahal izan genuenez E.T.B. ere hantxe zegoen; Juanito Zubiri, mikrofonoz eta Franzis, kamaraz.

Pilota lekua ttikia gelditu zen. Bazter guztiak jendez tanpeka. Nahiz eta lehendabiziko saioan nahiko urduri egon, bigarrenean nabaritu zen arras profesional onak direla, kantu ederrak eskeiniz eta entzulegoa goxatuz.

Arraroa bada ere, jende larria eta adinekoa han ikusten ahal zen martxa ederrez, gorputzak mugituz inoiz ez bezala.

Ameriketatik etorritako fans zintzo eta hemengoen artean, animazio ederra erdietsi zen.

Kalimotxo eta bermutez ongi ase omen ziren Zepelin ikaragarria bilduz. Ez zitzaien aunitz axola. Heldu den urtean ere hemen izanen omen ditugu. Agian, ordurako pilota lekua haunditu beharko dute, nork daki?

Paskual Rekalde

PLIXIO

Plixio izena zuen. Benetan dotorea zen Plixio, zilar dizdirak ziruditen bere lumak eta mokoa ere ezin garbiagoa zeukan. Hain dotorea zenez gero, etxe dotore batetan bizi zen, etxe dotore honen sukaldean zeukan bere kaiola. Kaiola, pentsatu izanen duzuen bezala, ederra zen, den dena urrez estalita zegoen.

Bere nagusiak ongi zaintzen zuten, beti behar adinako janaria izaten zuen ontzi txukun batetan, ura ere atzendu gabe, noski. Gauza guzti hoietaz gain, Plixiok sekulako suertea zuen zeren eta egunero bi orduz kaiolako ateak irekitzen zizkioten hegaz egin zezan. Hau dena kontutan hartuz, Plixio pozik bizi zen, munduan ez zegoela bera bezain ongi bizi zen txoririk pentsatzen zuen.

Urriako egun euritsu batetan etxeko teilatu azpian zegoen, bai, egun horretan ere bazituen bi ordu kaiolatik kanpo ibiltzeko baina bere luma dizdiratsuak bustitzea pena haundia ematen ziolako, teilatu azpian gelditzea erabaki zuen. Halako batean, mokoa bustitzen hasi zitzaiola konturatu zen, bere ondora begiratu zuen eta beste txori bat ikusi zuen.

- Aizu, kontuz ibili, bustitzen ari natzaizu eta! -esan zion erabat haserreturik ondoan zeukan txori arrotzari.

- Barka iezadazu, hor zeundenik ez naiz konturatu -erantzun zion zeharo bustita zegoen txoriak-.

Plixio haserretu egin zen erantzun hori entzutean eta handik alde egiten zuen bitartean pentsatu zuen: Nola izan daiteke posible? Nola daiteke ni ez ikustea hain ederra eta polita izanez?

Berriro ere bere kaiolatxo miresgarrira bueltatu zen eta etxeko jendeak egin zizkion mañakin gertatutako guztia atzendu zuen.

Dirudienez ixtorio hau gertatu zen urte hartako urria euritsua izan zen eta handik egun gutxi barru berriz ere egun euritsu bat agertu zen. Plixio berriz ere teilatu azpian gelditu zen, nola bustiko zen ba gure Plixio dotorea! Eta nor ikusiko eta hara non zegoen berriro ere aurreko eguneko txori arrotz





hura! Oraingo aldian ez zegoen bustita baina bere hegal azpian odola ikusten zen. Plixiok pena sentitu zuen eta hitz egiten hasi zitzaion.

- Zer gertatu zaizu hegal azpian?
- Atzo, teila batetan irriztatu nintzen eta erori egin nintzen, baina lasai, berehala sendatuko zait erantzun zion arrotzak.

- Nola duzu izena? -galdetu zion Plixiok-.

- Nik? Odei da nere izena.

- Nik Plixio izena dut. Aizu, zuk ez duzu bizitzeko etxerik?

- Bai, mundua da nere etxea.

- Mundua? Baina ez al duzu kaiolarik? -harritu zen Plixio-.

- Kaiola bat? Baina zer diozu? kaiola bati deitzen diozu zuk etxea? Neretzat kaiola bat kartzela da - erantzun zion Odeiek-.

- Hori diozu nere kaiola ezagutzen ez duzulako, erantzun zion Plixiok, irrifar batekin.

- Ez Plixio, kaiola hitza entzutearekin aski dut. Nahiz eta urrezkoa izan kaiola beti kaiola da, hau da, guretzat kartzela.

- Baina zuk ez duzu inoiz ikusi nere kaiola eta ezin duzu horrela hitz egin. Nere kaiola oso handia da, pentsa! bi segundoz hegaz egiten ahal dut ezertxo ere jo gabe, ez al da hori harrigarria? -eta hau esaterakoan Plixioren aurpegia zeharo alaitu zen.

Odei berriz, triste jarri zen eta begiak ilunduz esan zion:

- Plixio, ez duzu zuk ezagutzen zer den benetan hegaz egitea. Ez dakizu zer den itsas gainean ibiltzea, ezagutzen al duzu itsasoa?, ikusi duzu noizbait olatu bat?

- Ez, baina nik ere egunero bi ordu ditut hegaz egiteko, moztu zion Plixiok.

- Eta zer? Bi ordu hoiek mugatzen zaituzte, beti itzuli behar duzu bi ordu hoiek pasa ta gero, ez? Plixio, neretzat ez da hori libre izatea, nik trabarik gabe hegan egin nahi dut, ordurik gabe, nere lagunekin egon nahi dut, loreak usainduz hegan egin nahi dut, orain lurrera erortzen ari diren hostoak ukitu nahi ditut, haien gainean lo egin nahi dut, hondartzan etza nahi dut..

- Odei, ordua da, etxera joan behar dut -esan zion Plixiok- Agur.

- Agur Plixio. Ni gaur hegoaldera noa. Ongi bizi.

Handik aurrera, Plixio ez zen ordurarte bezain lasai bizi. Odei, txori arrotzak asko pentsaarazi zion. Hurrengo urteko udaberriko egun eguzkitsu batetan, etxe dotoreko kaiola dotorea hutsik zegoen. Plixiok itsasoa ezagutu nahi zuen. Plixiok libre izan nahi zuen.

R.U.

EUSKAL MITOLOJIARI BURUZ

Gure aitatxiren denboretan: Zugarramurditik Lesakara joan behar zelarik mendiz, oinez edo zaldiz. Ez zelarik periodikorik munduko berriak jakiteko. Jendeak uste zuelarik ilargira uliak baizik ez zirela ailegatzen ahalko hegaz joanez eta hantxe, ttaka, buruz beiti berak bakarrik dakiten bezala pausatuz. Afal ondotik telebistarik ez zelarik, eta hantxe, su bazterrean amatxiren hixtorio zaharrak aditzen. Ez zelarik "Rambo"rik, ez eta Rock durorik, ez futbolik, ez Reagan-Gorbachoverik, ez BMWrik, ez haur probetarik ez Chernobillerik, ez Challengerik, ez Marbellarik... ordüan, bai, orduan ezagutzen ziren beste guk ez ditugun ezagutzen pertsonaje edo sinismen batzuk:

GAUEKO: "Gauekok" gaua pertsonifikatzen du. Lehengo ideiak ziren angelus ondotik (ilunabarrean) jendeak ez zuela deus egitekorik etxetik kanpo, zeren gaua ailegatuz geroz, ez zegoen, etxean baizik, beste aterperik. Eta holaxe agertzen zaigu

Gaueko gauaren zaintzailea bezala. Gauekok zigortzen ditu gauaz ibiltzera atrebitzen diren jendeak.

IELTXU: Ieltxu ahotik su botatzen duen txori haundi bat da. Ez da tzarra, bainan norbaitek gauaz kuriosidadez segitzen badu, orduan bai tzartzen dela eta ohartu gabe eramanen du leze, zulo edo putzu haundietara.

INGUMA: Inguma etxeetan sartzen den genio tzarra da. Jendeak lo direlarik joaten da haiengana eta zintzurra estutzen diote tinko, erdi ito arte. Bainan Inguma haizkatzeko badire hitz batzuk:

"Inguma, ez nauk hire beldur,
Jainkoa eta Andre Mari hartzen ziat lagun,
zeruan izar, lurrean belar, kostan hare,
hek guztiak kontatu arte
ez hadiela nere ganat ager"

Inguma bezaltsuak dire "Aideko" eta "Gaizkiñe". Hauek, ez diren ezagutzen eritasun guztien responsableak dire. Gaizkiñe ezagutzen da oheko almohadan oilar baten gisako figura agertzen delakoz, orduan almohada hori erretzen bada, eritasuna joaten da.

MAMARRO: Mamarroak berriz, pertsonaje ttiki eta onak ditugu. Hauek bizi dire iskilinak altxatzen diren kutunean eta zaintzen eta laguntzen dute

kutuna duen jabeari. Hala, esaten zen sorgin, azti, eta zenbait sendagileendako Mamarroek laguntzen zutela.

BASAJAUN: Basajaun, bere izenak esaten duen bezala, basoen eta oihanen jauna edo erregea da. Gizonen itxura du bainan aise haundiagoa da, gorputz guztia hilez betea du eta oso indartsua da. Artzainen laguntzailea da: galerna bat eldu baldin bada, basajaunak irrintzi haundi batekin abisatzen ditu artzainak bere artaldea aterpera eramateko; baita ere basajaun artalde baten hurbilean baldin badago, ardien gare guztiak soindu egiten dute artzainari esanez lasai egoten ahal dela zeren basajauna hurbil izanez otsoek ez dire agertuko. Esaten da ere, basajaun lehendabiziko nekazari eta lehendabiziko arotza izan zela.

ERENSUGE: Erensuge agertzen zaigu zazpi buruzko suge haundi bat bezala. Bizi omen da leze ilunetan eta bere hatsarekin ekarrazten ditu beregana animale eta jendeak gero hil eta jateko. Esaten da ere, Aralarko Mikel Aingeruak hil zuela Teodosio de Goñi bere hatzaparretik libratzeko.

Zugarramurditik.

XALBADOR

Bertsolari eta poeta haundi bati omenez

Duela 10 urte hil zen, Urepelen, bere sorterrian, Fernando Aire "Xalbador". Aurten omenaldi eder bat eskeini nahi izanzaio oroitarri bat agertuz.

Buruilaren lehendabiziko asteburua berezia gertatu zen Baxe-Nafarroako xoko horretan. Bertsolari handi bati omenaldia egin zitzaion. 56 urte zituelarik, azaroko igande batean bihotzak huts egin zion Xalbadorri, Euskal Herri osotik hurbildutako jende guztiaren aintzinean.

Larunbat arratsaldean hasia zen pesta dantzaldi eta kantaldi batez. Igandea izan zen, berriz, egunik garrantzitsuena. Kultur gizon eta politikari, lagun eta adixkide andana ederra bildu zen han.

Herri meza entzun ondoren, segidan oroitarria agertu zen plazaren bazter batean kokatua, Baigorriko Kastro harripikatzaileak eta Gervais Paueko eskultoreak egindakoa da. Harri gorriaren erdian Xalbadorren iduria, arbola eta lauburua bazterretan dituelarik.

Oroitarria bedeinkatu eta, artzain-bertsolari ospetsu honi buruzko xehetasunak azaldu zituzten hitzlari desberdinek.

Herri bazkariaren ondotik, non berreun eta berrogeita hamar bat bazkaltiarrek hartu zuten parte, bertso saio interesgarria entzun ahal izan zen. "Gure ametsa" ezker pareta beterik zegoen. Eskenatokian, berriz, bertsolariak: S. Lizaso, A. Loidi, J. Gorrotxategi, Xanpun, J. Lopetegi, D. Ezponda eta Michel Salvador. Gai jartzailea M. Itzaina izan zen.

Arratsaldeko 7ak irian bukatu zen omenaldia.

Paskual Rekalde.

AINTZINAKO ARTZAINAREN

HARROTASUNA

(Trukearen garaietako poema)



Nire argiren batek, atzerritar hori,
zure ohial preziatu guztiek adina
balio du behinik behin.
Ezin didazu nahasi,
gezurti hori,
egunero eraisten bait diet
eta beren izenak
neuk asmatu nituen, sugearekin
mintzatuz gero.

Nire ardiek ere solas egiten didate
izuak harrapatutako begiez
eta maite naute benetan,
nire txakurra baino gehiago;
eta hil behar dutenik
ez dakitela, nik uste.

Mendian bakarrik egotean,
laztankiago mintzatzen zaizkit,
eta zihur nago
zure ohial preziatu guztiek
baino askoz gehiago
balio dutela,
bitxikeria merkatari hori.

GURUTZIFIKATUAREN ITZALA

Gurutzifikatuaren itzala
luzeegia da, astuna,
kristauek beraiek
ezin omen dute jasan
hainbeste zama;
guztioi, eguzkipean paratzerakoan,
jarraikitzen zaigu gurutzearen itzala,
hegazti ilun eta mehatxagarri hori.

Umiliazio handi baten historia,
garrasiak harrien artean,
urre eta mixeria;
ezin da onartu hainbeste oinaze
arrazoiaren zapalkuntza hutsa bezala,
malkoak begietan, gurutzadak,
esklabutasuna,
Ama Birjina, usoa,
beheko zorigaitza
deuseztarako.

Zitalkeria salatzen dut gaur,
gizakiaren alde nagoelako;
itsasoak, belardiak,
oinak eta bihotza
dira Jainkoak.
Jainkoa da andrea.
Eta gizakien gainean inor ez.
harea, lur idorra,
bide amaigabeak
herriak elkartzeko.
Eta euskal gauean, sorginak.

Joakin Balentzia.-

'NOSOTROS NACIMOS PARA SER LIBRES
NOSOTROS VIVIMOS PARA GOZAR
COMO EL CRISTAL PARA LA ESCARCHA
Y LA PRIMAVERA PARA ENAMORAR

NOSOTROS NACIMOS PARA SER LIBRES
NOSOTROS VIVIMOS PARA GOZAR..."

Baina ez da egia
Korrika egiteko jaio ginen
etortzen eta joaten diren gizonen barruan
non, superbizitzeko borroka gure helmuga da
korrika egiteko jaio ginen, argitzeko makinen
eta engranai esklaboen epokan
non, mundua bere pisuakin erortzen doan
ezkilak, egunaren eta gauaren orduak jotzera uzten
tiro baten abiadura eta irispiderekin
gerra, gose eta beldur haziera artean

Korrika egiteko jaio ginen
munduak zirkulatzen duen lekuan
eta ez du galdetzen nola orduak biratzen duten
dena itxuraz aldatu eta sakratua delako
gure eguneroko ogia bezala
eta lehen gauarena, non adorea eta engainu
jasankorra iratzartzen dira
superbizi arazi gaituzten sentsazio indartsuek



Korrika egiteko jaio ginen
non, malkoak sortu eta lehortzen diren lekua
non, gogoaren zimurrek mina ematen diguten beti
maztaildua den azken belaunagatik
non, zapalkuntza eta gabezia jaiotzen diren,
semez eta sasikume sentsazioen izerdiz betetako
aurpegiekin solastera exeritzen gara...
eta pixkanaka, pixkanaka, denborak jan gaitzala eta
horizontean gorde dadila, uzten dugu.
Gero, eskuak poltsikoetan ateratzen gara, eta
gela pentsamenduetan alokatua
bizidunak deitu ditugu eta hutsa dagoen iragana gogoratu
horrela itxaropena asmatzen dugu
kantatzen duen herriengan berriro sinetsiz
Korrika egiteko jaio ginen
lehen eguneko argiaren barruan
munduaren lehioiak bilatzen jakiteko
eta nola sufritzen duen haurdun dagoen lurra, begiratzeko
nola itsasoaren eztarriak garrasi egiten duen
bere barruan daraman armamendu karrera eta
proba kimiko nuklearrengatik.

Korrika egiteko jaio ginen
zientzia eta jainkoen kontzientzia txarren artean
gizonen heroitasun eta fetitxismoaren barruan
gobernuen genozidioa, beren demokrazia desfasatu eta asasinoekin
gero eta zapaltzailegoak Herriarekin

Korrika egiteko jaio ginen
haizea hanka tartean
mundu honetan, non, jainko imajinari baten eta gizonen
zuzengabekeria zuzendu inork ezin du
haiek beti, fabrikazioko akatsekin eginak izan direlako.

BELTZA EZ DA ILUNA

Herria dago ixilik
gaba iluna da,
ezpainak ezpainakin
biok bat egin da.
Gorputzak estu eta
bihotzak saltoka,
maite didazu baina
ez nik zu haina.

Aspaldian ez jaten
zure ezpainetik,
gogoz saiatu ginen
biok oso pozik.
Nahiz nahiko beltza izanen
ez dago gezurrik,
zure begiak hantxen
ez zuten ilunik.

Ezin garai batean,
gaur ez da berdin,
ahaztu nahi nuke baina
nik egin nizun min.
Orain gaude aukeran
utzi dugu ezin,
zure argitasuna
bai daukat nerekin.

Mendian eserita
itzalean gaude,
haur bat lau anka eta
nik zaitut maite.
Argazki hau beteta
besterikan gabe,
pozik biziko gera
Beltza etorri zaitez.

Lotsati.

Arratsaldetan piszinara joaten ginen eta banatu ginen. Etortzen ginenean bokadiloa hartzen genuen.

Txirrindarekin ibiltzen ginen, baita ere ibiltzen ginen moska, al pino, harrapatzen, zanparran, eta hola pasatzen zitzaigun denbora.

ABESTIA

Donostiako hiru damatxo
Errenterian dendari (bis)
josten ere badakite baina
ardoa edaten hobeki
eta kriskitin kraskitin
larrosa klabelin
ardoa edaten hobeki.



"Zubietako hiru damatxo"

Lehenago sorginak akelarrera
hegaz joaten ziren
suzko erratzen gainean.

. Petra ipurdian lau letra
. Urroz ipurdia zorrotz
. Legasa asko grasa
. Ardua burua eroa
. San Anton huevos al montón
. Zakarra astoan makurra
. Ergela ipurdin petrela.

13 URTEKO NESKEN GORABEHERAK

Doñua: Betzaiarenak
Neurria: 8-ko txikian.

1. Hamairu urteko neskak
asuntu berdina
eta honen muina
aisa ekaina.
Kanpoan eguzkia
ta eguldi bikaina
baina niri urtero
gauzatxo berdina.
Soziala gordina
maestra sorgiña
da gauza jakina
luzea ta fina
orain arte beinepin
gauza zikina

2. Uda laster ba dator
ta poztutzen gara
lasai asko aldatuz
gure janzkera
uda osoan berriz
berandu etxera
gero amaren bronka
ta aitaren galdera
Non egondu zera?
parranda sobera
ta lanak atzera
hau ez da manera
etxean bedeztako
gaurtik aurrera.

3. Piszinara joan eta
sardinak bezala
asko nabari zaigu
dela ostirala
Mutil bronzeatu bat
neretzat ideala
baina ez izateko
erria azala
mingainaz apala
andrean leiala
hankaz ez argala
euskaldun ideala
halakorik badago
esan dezala.

4. Oroi zaitezte zuek
neska bat naizela
eta hamairu urtetan
hola zinela
paratu duten zerbait
baldin bada ergela
barkatu dezazu ta
urratu txartela
berdinak garela
edo ta bestela
ez bada horrela
irakur nabela
nere bizi laburra
hemen dagoela

KATTALIN ATORRASAGASTI

Aingeru guardakoa





UDA

HONETAKO

ARGAZKIAK.

125 pzta.